

## MUGARRIAK DANTZAN. MEMORIA

### 1. Proiektuaren laburpena. (50 hitz)

MUGARRIAK DANTZAN egitasmoarekin Dantzazek mugaz bestaldeko bi eskolekin batera erresidentzi bat egin du, gure ondarean (arrantzaileak, musika) oinarritutako ekoizpena erabiliz, irakasleekin oso gertutik lan egiten, komunitate osoa inplikazioarekin: plangintza pedagogikoa zabala eraikiz, eta bi pieza koreografikoak sortuz, umeekin batera, eta publikoaren aurrean elkarrekin aurkeztea: Dantzaz eta umeak, denak batera. Komunitatearen parte hartzea gehiago bermatzeko, blog bat sortu dugu.

### 2. Parte hartzaileak:

- Dantzaz (proiektuaren egilea eta burua)
- Eklektika (proiektuaren beste kidea)
- Ville d'Anglet-Quintaou Antzokia
- Egia KZ-Donostia Kultura
- College Endarra
- Aitor Ikastola
- Mohammed Boujalal (Baionako musikaria, Marokon jaioa)
- Jorge Sanchez (Nafarroako musikaria, Kuban jaioa)
- Iñaki Salvador-aholkulari Musikala

### Dantzaz-i buruz:

Dantzazek lau estruktura biltzen ditu bere barnean:

- Europako dantzari gazteentzako LEHEN ENPLEGURAKO PLATAFORMA bat, hau da, lehen aukera profesionaltasunean ematen diegu, lehen kontratua. 2006tik hona, 77 dantzari pasa da guregandik
- Dantza Konpainia bat (Dantzaz Konpainia), dantzari horiek enplegatzeko. 250 emanaldi baino gehiago europan zehar, 90.000 ikusle baino gehiago. Konpainia baino, EKOIZPEN ETXEA da, koreograforik ez dugulako gure barnean, gonbidatzen bait ditugu. Urte bakoitzean 6-10 koreografoekin aritzen gara, ekoizpen ezberdinak egiten. Hortan datza gure "majia" dantzari gazteak enplegura bidaltzeko: ekoizpen profesional ugari eta kalitatezkoak egiten
- MEDIAZIO Orako gabinetea, 2002tik lanean dabilena, eskolak, komunitatearekin lantzen (hain zuzen ere, honetatik dator egitasmo hau)
- BERRIKUNTZAako laborategia "THINK TANZ", sektore ezberdinekin lanean aritzeko, laborategiak proposatzen. Esperientziak bukatuta, ebaluaketa ona baldin bada, prototipoak aurkezten ditugu.

### 3. Helburuak

Hasierako helburuak mantendu eta biderkatu egin dira!

Planteamendua hau zen:

dantza ekoizpen batean dauden osagarriekin plangintza pedagogiko oso bat egin, dantza konpainia baten erresidentzarekin lotuta, komunitate osoarekin harremanuz, ondarea ezagutarazteko eta beste modu batez harremantzeko

A: Euskal ondarea erabiliz egindako mediazioa: Esan bezala, Etxahun Iruriren kanta erabiliz bi musikariek egindako bertsioak erabili genituen.

Eta bertan izan ziren Mohammed Boujalal, Baionako musikaria, Marokon jaioa, eta Jorge Sanchez, Nafarroako musikaria, Kuban jaioa.

B: Ikaslegoa sortzailea da: bai Aitor Ikastolako taldeak, baita Angelukoak, bi pieza ikaragarriak egin zituzten, itsasoa eta itsasfizonak eta emakumeen lana goraiatuz.

C: Ondare etnografikoa erabiliz egindako mediazioa: lortu genuen Donostiko Itsasmuseoan bisitaldi berezi bat egitea, eta Angelun, Arrantzaileekiko bilera, Antton Ezeiza-ren Ikuska 16 laburmetraia (Donibane Lohitzunen grabatua 1982an), eta beste dokumentuak izan zituzten ikerketa honetan.

D: Kazetaritza: ikasleek blog bat egin zuten (mugarriakdantzan.eu), eta egunero sarrerak egin zituzten, prozesuari buruzko informazioa emateko, eta haien komunitatea elikatzeke.

### 4. Prozesuaren kontaketa faseka:

- Behin proiektua onartuta, hasi ginen bi kideekin kontaktatzen, hau da, Egia KZ, eta Angeluko Udala eta Quintaou Antzokia.
- Bi ikastetxe izan ziren aukeratuak, eta onartu zuten proiektuan parte hartzea: Aitor Ikastola Donostian, eta College Endarra Angelun
- Musikaren bertsio berriak egiteko kontaktatu genituan bi musikariak: bata Mohammed Boujalal, Baionakoa, eta bestea Jorge Sanchez, Barañaingoa (Nafarroa), "Goizian Argi Hastian" abestiaren bi bertsio ezberdinak egiteko, haien jaioterriko kulturarekin lotzeko, hau da, Maroko eta Kubarekin.
- Eklektikak webgune bat eraki zuen eta otsailaren 15erako prest zegoen, proiektua aurkezteko eta egingo genukeen blogari lekua egiteko.
- ERRESIDENTZIAREN ASTEA:

Otsailaren 22an, astelehena: bi taldeak elkarrekin pasa zuten eguna Donostian.

Angelukoak Donostira doaz autobusean, Gazteszenan izateko 11:00etan.

Bi ikastetxeentzako Dantzazen ekoizpen berriaren aurkezpena: AUREO, eta konpainiaren dantzarietako solasaldia.

Elkarrekiko Piknika (Aitor Ikastolako umeek prestatuturikoa)

Dantza tailerraren aurkezpena, Dantzazen dantzarietako egindakoa.

Kazetaritza tailerraren aurkezpena, Eklektikak egindakoa

Angelurako bueltako bidea umeentzako, 17:00etan Angelun izateko

Otsailaren 22an, asteartea: talde bakoitzak bere herrian egiten du lan.

Eklektikarekin, kazetaritza tailerra (Donostian, Aitor Ikastolan, Angelun, Quintaoun Antzokian)

Antton Ezeizaren "Ikuska 16" laburmetraia ikusi.

Gonbidatutako musikariarekin bilera eta abestia ezagutu.

Aitor Ikastolakoak Donostiako Itsas Museora joan ziren "Emakumea eta Itsasoa" erakusketa ikustera.

### Otsailaren 24tik 26ra arte

Dantzariak bi taldeetan banatzen dira.  
Angelu – Lekua: Quintaou Antzokia  
09:00 – 11:00 : Dantzazen entsegua  
10:00etan: Angeluko umeak entsegua ikusten dute  
11:00 – 12:00 : Kazetaritza Tailerra  
Donostia: Lekua Aitor Ikastola  
9:00-12:00 Tutoreak egindako programazioa  
Bi lekuetan: Donostian eta Angelun  
12:30-13:45 : Elkarrekiko bazkaria  
14:00 – 16:00: Koreografia Tailerra Dantzazen dantzariekin  
16:30etan: bukaera

### Otsailaren 27an, larunbatean

Lekua: Quintaou Antzokia, Angelu  
15:00 – 17:15 : Flash !entsegu orokorra (Dantzaz)  
16:00 etan : Bi aldeetako umeak ailegatzen dira Quintaou Antzokira (Donostitik bi autobusak etortzen dira, familiak eta irakasleekin batera)  
17:30 – 18:15 : Endarra Ikastetxearen entsegu orokorra  
18:30 – 19:15 : Aitor Ikastolaren entsegu orokorra  
19:45 – 20:15 : Buffet partehartzaile guztientzat  
20: 30 : Mugarriak Dantzan ikuskizuna

### Partehartzaileak:

- Umeak: 10 + 24: 34
- Irakasleak: 2+1: 3
- Dantzariak: 12
- Staff Dantzaz: 3 + 2 teknikari
- Staff Eklektika: 3
- Egia K.Z.: 2 staff + 2 teknikari
- Quintaou Antzokia: 2 staff + 3 teknikari
- Donostitik etorri zirenak: bi autobusak (94 pertsona), beraz, eskola komunitateko 70 persona gehi umeak.
- Ikusle kopurua azken “Mugarriak Dantzan” ikuskizunean: 700 inguru

### **5. Jarraipena. ¿Proposamenik ba al dago hasitako elkarlana jarraitzeko?**

Beti bezala, Dantzazek jarraituko du bide honetatik lantzen, eta beste ikastetxeekin ari da lanean, dantza erabilgarria izateko prozesu pedagogiko osoan.  
Beste kideekin hasitako harremana mantentzen saiatuko gara, eta gustatuko litzaiguke esperientzia berriro errepikatzea, baliabideak lortuz gero.

### **6. Balorazioa.(\*)**

- **ondorioak, ikasketak, zertarako balio izan zaizun esperientziak?**

Kideekin izandako esperientzia oso aberatsa izan da. Erresidentziaren kontzeptuarekin jarraitu dugu lanean, eta gehiago garatu dugu, eta umeekiko egindako sormena oso baliogarria izan da guretzat

Benetan mamitsua izan da elkarlanean aritzea Eklektikarekin, beste ikuspuntu bat eman diolako proiektu osoari, eta benetan ikaragarria musikarien ekarpena: hemengoak dira, beste jaioterria izanda, eta haien kulturaz kutsatzea benetan gustagarria izan da proiektuan parte hartu dutenentzako.

- **Eraldaketaren bat egon da zuen praktketan? Prozesu hauek zuen praktketan txertatzeko plana duzue? (programa berri bat, beste eragileekin kolaborazio iraunkorra...)**

Lehen proiektuan bezala esan genuenez, nahiko genuke gure estrukturarako definizio berri hau sartu, baina oraindik ez dugu erabat bukatu definizio berria. Hala ere, bai, intentzioa dugu honelako lanarekin jarraitzeko, hain zuzen ere, pentsatzen dugulako horrelako egitasmoak garrantzi izugarria dutela egileak, sortzaileak eta ondarea zabaltzeko.

- **Zeintzuk dira dituzun baliabideak eta beharrak metodologia honekin jarraitzeko.**

Batez ere, gure eskarmentua, eta gure dantzari gazteek emandako energia eta gogo bizia.

## **7. Glosarioa.(\*)**

### **Esperientziarekin lotzen dituzun 3 hitz aipatu**

sinergia, harremana, komunitatea-sarea

## **8. Iruditegiak. (\*)**

Esperientziarekin lotzen dituzun 3 irudi. (Prozesuan hartutako irudiak, sinbolikoak, metaforikoak ...)

Sarearena, komunitatearena, azken egunean Quintaoun izandako topaketaren bukaera: malkoak, "selfiak", besarkadak, aurpegi irribarretsu...

(\*) beste partaideekin konpartituko ditugun atalak.